

Irakurtzea plan bikaina da!

begiko

1. alea





Peluxea, pijama, ipuin bat eta lotara!

Ba al zenekien zure panpinek ere atsegin dutela lotara joan aurretik ipuin bat irakur diezaieten?

- Saiatu zure peluxeei gustatuko zaien gai bat **bilatzen**.
- **Asmatu** hasiera, korapiloa eta amaiera dituen istorio bat.

Istorioko pertsonaiak eta lekuak deskribatu itzazu.

- **Kontatu** ipuina ahoz, gertakari bakoitza intonatus eta antzeztuz.
- Istorio honekin **liburu bat** egin nahi baduzu, ondoko orrietan azalduko dizugu nola. Oso modu erraz eta dibertigarrian egin ahal izango duzu.

1



**Nola egiten dute
zurrunga
zure panpinek?**



Ni liburua


Zu zeu eta zure emozioak liburu bilakatu ahal izango dituzu, zeu izango zara liburua.

Beharrezko materialak:


- Folio 1
- Guraizeak edo artaziak
- Bolaluma
- Errotulagailuak eta koloretako margoak
- Grapagailua

1. **Tolestu** folioa erditik, luzetara. Tolestu berriz (oraingoan, zabalean) eta moztu ertzak alde estuenetik.
2. **Grapatu** alde zabalenetik.
3. **Marraztu** estalkietan gorputz baten erdia eta **moztu** ezazu.

2



Orri bikoiti bakoitza emozio bati lotuko diogu (poza, haserrea, tristura, eta abar). Gure liburuaren alde batean adierazpena jarriko dugu, kontrako aldean emozio hori eragiten dizuten gauzak.



Poza Tristura Haserrea Sorpresa Beldurra Zoriontasuna

Gero eta folio gehiago jarri, orduan eta istorio eta adierazpen gehiago kontatu ahal izango dituzu.





Probatzen, probatzen...

Ikusiko duzu zein erraza den ipuin bat inprobisatzea. Utzi txartelek gida zaitzaten.

Beharrezko materialak:


- Zereal edo galleta kutxa
- Guraizeak edo artaziak
- 3 gutun-azal edo poltsa
- Errotulagailua

1. **Moztu** hirurogei txartel, zereal edo galleta kutxak berrerabiliz.
2. **Taldekatu** hogei txarteleko hiru taldetan. **Lehen** taldean idatzi izenak, **bigarreanean** aditzak eta **hirugarreanean** adjektiboak.
3. Jarri txartel guztiak buruz behera edo poltsa batean.

3

Txartelak banaka **hartu** eta hitz hori txertatuz ipuin bat **kontatu** behar duzu. Ipuinak **etorkizunerako** gorde nahi badituzu, nonbaiten idatz ditzakezu, baita zure liburutegian gorde ere. Jarraian azalduko dizugu nola.

**Presta zaitez
ipuin ezinezko
eroak sortzeko!**






Zeintzuk dira liburu baten atalak eta zertarako balio dute?

Azala: liburuaren aurpegia da.

Bizkarra: pisu guztiari eusten dio eta liburutegian liburuak topatzen laguntzen digu.

Gainazala: azala dotore janzten du.



Hegala: azala informazio gehigarriarekin osatzen duten tolesdurak dira.

Orriak: abenturak bizi diren lekua.

Xingola: liburuaren gerria estutzen du datu harrigarriekin.

Barruko azala: hautatu duzun liburuaren izenburua gogorarazten dizu.

Babes-orria: azala eta liburuaren mamia (orriak) batzen ditu.


Azalurrea: idazleek haien eskaintzak hemen idazten dituzte.



Nire liburuaz hitz egitera etorri naiz hona!

Horregatik, liburua nola egin azalduko dizugu, gero zure ezagun guztiei hitz egin diezaiezun liburuari buruz.

- **Orriak.** Idatzi zure istorioa hainbat foliotan eta ondoren grapaz lotu itzazu.
Kasu, idatzi ezazu letra txukunez.
- **Ilustrazioak.** Zirriborro, collage eta marrazkiak gehitu ditzakezu.
- **Azalaurrea.** Idatzi hemen zure eskaintza eta sinatu ezazu liburua.
- **Koadernaketa.** Kartoiz egindako azala eta folioak batu itzazu, grapen bidez.
- **Azala,** atzeko azala eta bizkarra.
Kartoia berrerabiliz egin ditzakezu.
Neurriaren aldetik, zure liburuko orrien bikoitza baina apur bat handiagoa izan beharko da, horrela kartoiak zure eskuizkribuaren lehen eta azken orriak estali ditzan.



5

Apaindu liburua erakargarria izan dadin. Hori da bere arrakastaren gakoetako bat.



Txokolate errimatzeko, esan ahuakate

Postre hau gozo-gozoa, azkarra eta osasungarria da!

Prestatzeko behar duzu:

- *Ahuakate 1*
- *Banana 1*
- *80 gramo txokolate fondant*
- *3 ezti koilarakada*
- *3 esne koilarakada*
- *Galletak*

1. **Urtu** txokolatea 3 esne koilarakadekin.
2. **Zuritu** ahuakatea eta banana eta zanpatu itzazu sardeska batekin, ore bat lortu arte.
3. **Gehitu** txokolate urtua eta ezti platanoarekin eta ahuakatearekin egindako oreari, ondo **nahasiz**.
4. **Zatitu** galletak (gustukoen dituzunak) eta banatu itzazu hainbat edalontzitan.
5. **Jarri** gainean orea eta honen gainean jarri **berriz ere** galleta zatituak.

**Poema bat
da postre hau!**





Egilea

Inés Burgos

Azaleko ilustrazioa

Teresa Bellón

La vaca dijo mua

(Loqueleo, 2020)

liburutik